



XXXXX-(E)KO ALDI BATERAKO LAN POLTSETAN DAGOEN PERTSONA BATEK LAN POLTSETAKO PERTSONEN EZGAITASUN EGOERAREN BERRI EA JAKIN DEZAKEEN GALDETUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulegoan XXXXX-(e)ko aldi baterako lan poltsetan dagoen pertsona baten idazki bat jaso genuen. Idazkian galdetu zuen ea jakin dezakeen bera dagoen lan poltsetako gainontzeko pertsonen ezgaitasun egoera zein den.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko herritar batek egindako kontsultari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Hasteko esan behar dugu galderak zer ikusia handiagoa duela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak arautzen duen artxiboetarako eta erregistroetarako sarbide eskubidearekin, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearekin baino.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 15.1. artikuluan arautzen du atzipena eta zera dio: *“Interesdunak eskubidea du eskatzeko tratatzen dituzten berari buruzko **datu pertsonalen gaineko informazioa**, zein den datu horien jatorria eta datu horiekin zeintzuk komunikazio egin diren eta zeintzuk egitea aurreikusten den. Eta informazio hori doan jasatzeko eskubidea du”*. Eskubide hau guztiz eskubide pertsonala da, eta norbere datuak kontrolatzean datza; eta kontsulta egileak aipatzen duen beste sarbide eskubidea, ordea, norberaren nahiz inoren datuak atzitzeko eskubidea da.

30/1990 Legeak aitortzen duen eskubidea zaintzea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, ikusi bestela zer esan zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2009ko uztailaren 8ko epaian:



"Demanda egileak azaldutako portaerak ez du zer ikusirik datu babeserako oinarrizko eskubidearekin, 30/1992 Legearen 35a) artikuluan edo 37.2 artikuluan araututako artxibo eta erregistroetara sartzeko eskubidearekin baizik. Hau da, prozedura jakin batean dagoen dokumentazioa eskuratzeari buruz ari da demanda-egilea, eta hori Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eskumenetik kanpo dago."

Kontuan izan behar da gaiak zer ikusi handiagoa duela administrazio zuzenbidearekin datu babesarekin baino. Hala ere, laguntzeko asmoz, hainbat ohar egin nahi ditugu. Ohar horiek Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren 2012ko uztailaren 26ko irizpena ekarri zuen CN12-066 kontsultan ere egin genituen. Eta oraingoan berretsi egiten dugu han esandako guztia.

II

Kontsultak aipatzen duen datu-tratamendua datu-lagatze edo datu-komunikazio bat da. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3 i) artikulua araberan, datu lagatzea edo komunikazioa zera da:

"interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea"

DBLOren arabera, datuak lagatzeko arau orokorra adostasuna da:

Zehatzago esanda, DBLOren 11,1 artikulua honakoa dio:

"Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da".

Bigarren artikuluko 2. idatz-zatian arau orokorrak dituen salbuespenak xedatzen dira, eta aztertzen ari garen auzirako aipatzen duen salbuespena:

"Lege batek baimentzen badu lagapena".

Kasu honetan datu lagatzea legez ez duten legea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea da, zehatz esanda Legearen ondoko artikulua:

"35 a) artikulua.- Herritarrek honako eskubideak dituzte administrazio publikoekiko harremanetan:

a) Interesdunak badira, edozein unetan jakin dezakete prozeduren izapideak zertan diren, eta prozedura horietako agirien kopiak lor ditzakete."

Artikuluak artxiboetarako eta erregistroetarako sarbidea arautzen du, nahiz eta izapidetzen ari diren prozedurei ere eragiten dien, interesdunak diren herritarrei horiek atzitzeko baimena emanez.

Manu horrek Konstituzioaren 105 b) artikuluan du jatorria.

"Legeak arautuko du:

...



Herritarrak artxibo eta erregistro administratiboetara sartzea, salbu eta estatuaren segurtasun eta defentsari, delituen ikerketari eta pertsonen bizitza pribatuari dagokienez.

Esan dugunez, eskubideak ez du zer ikusirik DBLOk arautzen duen beste eskubidearekin.

Beraz, lan poltsak izapidetzeko eskumena duen erakundeak erabaki behar du ea eskubidearen eskatzailea interesduna den ala ez prozeduran.

KONstituzio Auzitegiak interes legitimoa zera dela esan du: *"asmo bat baliatu nahi duenak duen abantaila edo erabilera juridiko baten -ez du zertan ondare edukikoa izan- gaineko titulartasun potentziala, asmoak aurrera egiten badu gauzatzen dena".* Horretaz gain, interes legitimoa egoteko, errekurritutako jarduerak eragin garbia eta nahikoa izan behar du prozesura jotzen duenaren eremu juridikoan (martxoaren 23ko 45/2004 KAE, 1. oinarri juridikoa).

Lan poltsen organo kudeatzailearen betekizunen esparruan sartzeko asmorik ez badugu ere, ondoko hausnarketak egiteko aukera baliatu nahi dugu.

Isabel-Cecilia del Castillo Vázquezek dioenez *"DBLOk argi uzten du gardentasunaren eta sekretuaren artean, jakiteko eskubidearen eta isilik egoteko betebeharraren artean, eta administrazioaren eskura dagoen informaziorako eskubidearen eta pertsonen pribatutasunerako eskubidearen artean aspalditik dagoen tentsioa"* Eta tentsio horren isla da doktrina garrantzitsuenak agerian utzi duen konplexutasun juridikoa.

Hala ere, LUCAS DURANEk dioena ere kontuan hartu behar dugu, hau da, printzipio bien arteko ezinbesteko tentsioak gauza bat bakarrik esan nahi duela, printzipio bi horietako bakoitzak ezin duela bere aldetik norabide bat hartu betiko (publikotasuneranzko norabidea ala sekreturanzko norabidea), egon badagoelako kontraintzipio bat (kontrako norabiderantz indarra egiten duena) hasierako norabidean etena egiten duena eta gardentasuneranzko norabidean ala isiltasuneranzkoan egiten den urrats bakoitzari kontrako norabideranzko indarra egiten diona, bien arteko ponderazioa bultzatuz. Gauzak horrela, administrazio gardentasuna zenbaitetan murriztuta agertuko da, gerta daitekeelako interes zehatzen bat egotea tartean, behar bezala ponderatu ondoren, interes orokorraren ginetik dagoena."

...

"Horregatik sekretu gorde beharragatik babestuta dauden alderdiak eta informaziorako eskubidea uztartzeko modukoak badira, administrazioak ezin izango du ukatu espedientean sartzea."

Gure ustez, aztertzen ari garen kasu hau izapidetze fasean dagoen prozedura bat eskuratzea edo atzitzeari buruzkoa da, eta prozedura horretan parte hartzen ari diren aldi baterako lan poltsa bateko parte hartzaile guztiak dira interesdunak. Beraz, datu babesari dagokionez, ez dago arazorik jakiteko zerrendan daudenen identitatea, zerrendan duten hurrenkera, egiaztatu duten hizkuntza eskakizuna eta ezgaitasunari buruzko datua, baldin eta datu horiek garrantzitsuak badira lan poltsen funtzionamendurako.

Kasu honetan argi dago hala dela XXXXX-(e)k argitaratutako Lan-poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan-poltsatako kideak ordenatzeari buruzko Erabakiaren (XXXXX-(e)ko EHAA) 15. artikulua dioena ikusita: *"Bereziki aintzat hartuko dira ezgaitasuna modu frogagarrian egiaztatzen duten poltsatako kide diren langileak, bai haientzat gorde beharreko eskaintza kopuruari dagokionez, eskaintzen % 5 gutxienez (edo hogeiki eskaintzatatik bat gutxienez), bai eskaintzen izaerari dagokionez, bete beharreko eginkizunak pertsonaren beharretara ahalik eta ondoen egokitze aldera"*.



Beraz, alde batera utzita eskumena duen erakundeak ebatzi behar dituela egiten dizkioten eskaerak, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du kontsulta egileak jakin dezakeela zein den berarekin batera XXXXX-(e)ko aldi baterako lan poltsetan daudenen gainontzeko pertsonen ezgaitasunaren datua, eta horrek ez duela datu pertsonalak babesteari buruzko araudia urratzen, baldin eta datu hori jakitea garrantzitsua bada lan poltsak behar bezala kudeatzeko.

Baina ez da datu babesaren araberakoa izango esatea zein den ezgaitasun maila eta ezgaitasunaren arrazoia, edo lan poltsan daudenen intimitatea kaltetzen duen bestelako informazioa, batez ere, helburua lortzeko garrantzitsua ez bada.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 3a